

Eskarmiento

1 **Sorrera.** Taldea aspaldi sortu zen eta hasieratik honen atzean anaia Mario eta ni, Javi, egon gara. Taldean 3 izan gara beti, baina 3. taldekide hori denborarekin aldatzen joan da. Auzoko lagunen artean sortu genuen taldea eta askotan zerotik hasteko aukera izan dugun arren, ondo pasatzen jarraitzen dugun bitartean, Eskarmientorekin jarraituko dugu.

2 **Izena.** Nire ideia izan zen (Javi), Eskorbuto musika taldearen antza zuelako eta garai horretan talde horrek eragin handia zuelako nigan. Gaur egun gure musikak ez dauka Eskorbutoaren musikarekin zerikusirik, nahiz eta noizean behin euren bertsioak jo ditugun.

3 **Kideak.** 2008tik aurrera Gorkak, Mariok eta hirurok osatzen dugu taldea. Gorkak bateria jotzen du, Mariok gitarra eta nik baxua. Era berean, Mario eta biok aho-tsa jartzen dugu. Taldeak 4 gitarrista izan ditu bere sorreratik.

4 **Estiloa.** Punk-rocka egiten dugula esango nuke. Hala ere, ez zaizkigu inoiz etiketak gustatu.

5 **Abestiak.** Guk sortzen ditugu gure abestiak, nahiz eta lehen esan dudan moduan, bertsio batzuk ere jotzen ditugun. Egu-



nerokotasuneko gauzak aipatzen ditugu letretan, gauza eta pelikula beldurgarriak, neskak, amodioa, desamodioa, Ramonesekin zerikusia duten abestiak, 'teenager' abestiak (nahiz eta hain gazteak ez garen)... Ez gara idazle apartak, beraz, egiten dugun musika-rekin hoberen geratzen diren letrak egiten ditugu.

6 **Entseguak.** Hainbat lokaletan egon eta gero, 1999tik Eibarko Legarreko lokaletan entseatzen dugu. Astegunetan biltzen gara, gauetan, hirurok ahal dugunean.

7 **Azken kontzertua?** laz ezin izan genuen jo eta azken kontzertua Eibarko Ryder tabernan edo Barakaldon eman genuen, ez dut gogoratzen. Hala ere, entsea-

tzen jarraitu dugu eta gaur egun, bi aste lehenago abisatuta, kontzertua eskaintzeko prest egon gaitzek.

8 **Diskorik, maketarik...** 1999an maketa atera genuen. Ordenagailu batekin grabatu genuen, gure lokalean. 2001ean, berriz, Errenteriako Studio 77n 'Castle Rock' CDa grabatu genuen, J. Reboredo eta gure artean ekoitzita (eskarmiento@hotmail.com helbidean eros daiteke). 2006an lanari ekin genion berriro ere eta abesti batzuk estudioan grabatu ditugu, baina gauzak lasai-lasai hartzen ditugu.

9 **Kontaktua** eskarmiento@hotmail.com, weare138.6@gmail.com edo www.myspace.com/eskarmiento

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua
euskalduntzen